# Donostiak bere uda kultural osasuntsuenaren argiak piztu ditu

*Kultura eragileek goi-mailako programazioak aurkeztu dituzte, eskaintza anitzekoak eta herritar guztientzako irisgarriak*

*Bostehun jarduera baino gehiagok osatzen dute pandemiaren etenaldiaren ondoren hiria bultzatuko duen agenda*

Donostiak udako kultur denboraldia irekiko du, eta eskaintza “aberatsa, zabala, anitza, irisgarria, publiko guztiarentzat, dinamikoa eta hurrengo hilabeteetako osasun egoera aldakorrera egokituta egongo da”. Hala adierazi du gaur Eneko Goia alkateak, Donostiak datozen hiru hilabeteetan eskainiko duen kultur programazioaren aurkezpenean.

Alkatea, aldez aurretik, lan-bilera baten buru izan da Donostiako udaldiko aktore nagusiekin: Donostia Kultura, Jazzaldia, Hamabostaldia, Zinemaldia, Chillida Leku, Tabakalera, San Telmo Museoa, EHUko Udako Ikastaroak, Kutxa Kultur, Aquarium, Elizbarrutiko Museoa eta Kursaal. Horiek guztiek, eremu pribatuko beste sustatzaile batzuen eskaintzarekin batera, proposamen sorta handia osatuko dute. Eta proposamen horiek aukera kulturalez betetako uda aurkezten dute donostiarrentzat zein bisitarientzat, eta hiria hainbat diziplinatako agertoki bihurtuko dute.

Bostehun jardueratik gora osatuko duten programazioa, hain zuzen ere, lehengo astean HONDALEA jendaurrean aurkeztuta hasi eta irailaren amaiera arte, Zinemaldia arte, luzatuko diren jarduerak. Hiruhileko bat izango da, ohiko jai hitzorduekin, irismeneko erakusketekin, kaleko antzerki jarduerarekin, kontzertuekin, jai jarduerekin eta jarduera ludikoekin.

Hori guztia, gainera, osasun-bilakaeraren ondorioz aldatzen ari den testuinguru batean egingo da. Hortaz, udak dimentsio dinamikoa izango du, agintariek ezarritako edukiera-baldintzetara egokitzeko.

Kultura programazio hori “askotarikoa eta gainditzen zaila izango da, izan ere, hainbat modutan eta leku desberdinetan gozatzeko aukera emango du, eta gainera, kultura-sektorearen eta zerbitzu osagarrien jarduera laguntzeko balioko du.

“Une zailean, Donostiak kultura-jarduera babesteko formulak bilatu ditu, eta uste dugu egin dezakegun ekarpenik onena programatzea dela”, adierazi du alkateak.

## DONOSTIA KULTURA

**San Telmo Museoa:** *“Bidaiarik luzeena”*, munduaren lehen itzuliaren oroitzapenezko erakusketa, ekainaren 26an iritsiko da San Telmo Museora. Erakusketa honek, munduaren lehen itzulia historia unibertsaleko gertaera garrantzitsu gisa kontatzeaz

eta oroitzeaz gain, gizakiaren espiritu esploratzaileari eta ezezagunaren aurrean duen jarrerari egindako omenaldia ere bada.

Museoaren aldi baterako erakusketen eskaintza beste proposamen interesgarri batzuekin osatuko da uda honetan: *Magia, materia eta beharra,* Jose Mari Zabalaren lan bideografikoa Museo Bikoitza programaren barruan, eta Cristina Iglesiasen *Hondalea*ren sorkuntza-prozesua erakusten duen erakusketa.

Bestalde, pandemiagatik itxitak egon ondoren, Urgull mendiko hiru zentroek ateak irekiko dituzte uda honetan: Historiaren Etxea ekainaren 18tik aurrera egongo da zabalik, *Donostiara Begira* erakusketan aldaketa batzuk eginda; eta aldiz, Natur Txokoak eta Liburutegiak uztailaren 1etik aurrera irekiko dituzte ateak.

Gainera, aurten hirurek umeentzako jardueren eskaintza berreskuratuko dute, beti ere egoerari egokitua: edukierak murriztu eta jarduera guztietan izena eman beharko da. Bakoitzak astean behin eskainiko ditu, euskaraz eta 5 urtetik gorako haurrentzat.

**Jazzaldia:** Jaialdia uztailaren 21etik 25era izango da, eta doako zein ordainpeko 60 kontzertu izango ditu, hiriko 8 agertoki desberdinetan. Sarrerak eta abonuak atzo, ekainak 9, jarri ziren salgai.

Emakumezkoen ahotsen eta pianisten jaialdia izango da hau, eta musikari espainiar ugari izango ditu ere. Honetaz gain, familientzako Txikijazz sailak lau saio izango ditu, doakoak, Guuk Gunea terrazan eta Kutxa Kultur Tabakaleran.

**Festak:** Donostia Festak-ek kultura eta kirol jarduera programa bat prestatu du; ekainaren 24an hasiko da, San Vicente elizan emango den abesbatza-kontzertuarekin eta irailaren 12an amaituko da, Donostiako Estropaden bigarren egunarekin.

Formatu txikiko jarduerak izango dira, eta musika, kale-antzerkia, herri-kirolak, haurrentzako jarduerak eta zinema izango dira protagonistak. Era guztietako publikoarentzat programatutako kirol-proposamen ludikoetan ere parte hartu ahal izango da.

Zinemak eta antzerkiak auzoak bisitatuko dituzte abuztuan zehar eta, irailean, estropaden inguruan, eta euskarazko ekoizpenari lotutako kultura-programazioa izango dute. Gainera, Erraldoiak San Telmo Museoan egongo dira ikusgai abuztuan zehar.

**Antzerkia kalean:** Donostia Kulturak, kultur etxeen sarearen bidez, Antzerkia Kalean 2021 antzerki-programa antolatzen du, ekainaren 11tik irailaren 10era. Guztira, 18 konpainiak hogeita bat ikuskizun aurkeztuko dituzte 25 emanalditan. Hauekin ikuskizuna, musika, umorea, zirkoa, jolasa eta kolorea izango dira gure hirian.

Haur eta familientzako proposamenak nagusi dira helduentzako dantza eta antzerki proposamenak biltzen dituen programan. Eta programa hau hainbat auzotan egingo da.

**Udako antzerkia:** Iaz agertokiak seguruak direla erakutsita, Udako Antzerkia 2021an itzuliko da, komedian oinarritutako programazioarekin, ikuskizun ezagunekin, eta artista eta izenburu entzutetsuekin.

Besteak beste, *"Ramper", "Yo soy el que soy", "La mujer de negro", "Por lo pelos"* antzezlanak*, eta* Loles León, Jorge Javier Vazquez, Oscar Terol eta Gorka Otxoa bezalako aktoreen lanak ikusi ahal izango dira. Gainera, bi estreinaldi izango dira, hala nola *"5 minututan"* eta *"Capullas" antzezlanak.*

**Dkluba:** Donostia Kulturako Dkluba zirkuituak kontzertuak antolatzen jarraituko du hiriko areto pribatutan. Hala, ekainetik irailera, hainbat emanaldi daude programatuta Bataplan, Dabadaba, Doka eta ¡Beclub! lokaletan… Besteak beste, Dupla, El Meister, Manolo Kabezabolo, Havoc taldeak entzun ahal izango dira.

**Public diplomacy & cultural diplomacy:** UPV/EHUko Udako Ikastaroen eskaintzaren barruan, Donostia Kulturak *"Public diplomacy & cultural diplomacy"* ikastaroa eskainiko du. Bertan, euskal kultura-diplomazia publikoaren lau hamarkada aztertuko dira, eta kultura-diplomaziaren tipologien hurbilketa eskainiko da. Uztailaren 21etik 23ra izango da.

## ZINEMALDIA

2021ean, Zinemaldiak uste du osasun-egoerak 69. edizioa antolatzeko aukera emango duela, pandemiak baldintzatuta, baina urte normal baten antzeko baldintzetan.

Emanaldi-kopurua eta aretoen edukiera handitzea espero du, eta izarrek alfonbra gorrian duten presentziak berreskuratu nahi ditu. Azken finean, aurtengo jaialdia ilusioa hirira itzuliko duen jaialdia izatea, hilabete zailak igaro ondoren esparru guztietan.

Irailaren 17tik 25era, izen ezagunen bidez zuzendutako tituluak eta talentu gazteen lanak txandakatuko ditu Sail Ofizialak; New Directors-ek bere zinemagileen lehen edo bigarren lanak aurkeztuko ditu; Horizontes Latinosek Latinoamerikako zinemari begiratuko dio; Zabaltegi-Tabakalerak arauik eta estilo- edo denbora-mugarik gabeko lanak erakutsiko ditu; Perlak-ek beste lan batzuk erreskatatuko ditu. Gainera, Culinary Zinema, Made in Spain, Zinemira eta eskola-umeentzako proiekzioak ere izango dira.

Bigarren urtez jarraian, belodromoa ezingo da erabili zinema-areto erraldoi gisa, baina Zinemaldiak Klasikoak eta 'Loreak infernuan. Koreako zinemaren urrezko aroa', iaz bertan behera utzi behar izan zena pandemiagatik.

## HAMABOSTALDIA

82. Donostiako Musika Hamabostaldia abuztuaren 1ean abiatu eta hilaren 27an amaituko da. COVID-19ak eragindako mugek baldintzatuta bada ere, aurtengo programazioa normaltasunera aurrerapauso gisa ondu da eta aurreko jaialdien tamaina berreskuratu du, hein handi batean.

Donostia izango da Hamabostaldiaren erdigunea, baina 2020an pandemiaren eraginez baztertuta geratutako zenbait eszenatoki zein ekimeni helduko diegu berriz ere; hartara, jaialdia Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko hainbat herritako kultur bizitzako eragile izango da berriro ere.

Kursaal Auditoriorako atondu den programazioa, hauxe da jaialdiaren egoitza nagusia, normaltasunera itzultzeko bokazio horren adierazgarria da eta, jenderarentzat eskuragarri den eskaintzari esker, aukera bikaina izango da munduko bakarlari onenetakoak, orkestra nahiz abesbatza handiak, eta askotariko errepertorioa entzuteko.

Kursaal Auditorioan izango diren emanaldiez gain, 82. Musika Hamabostaldiaren programazioaren zutarri dira, halaber, beste zenbait eszenatokitan izaten diren zikloak. Eszenatoki horietako batzuk klasikoak dira honezkero, Victoria Eugenia Antzokia edo San Telmo Museoa, adibidez; beste hainbat, Tabakalera, kasurako, finkatu dira jaialdiaren programazioan; eta badira aurten berriz ere programazio horretara itzuli direnak, Arantzazu eta Chillida Leku, esate baterako.

## TABAKALERA

**Artearen esparruan**, bi erakusketa nagusi izango dira ikusgai Tabakaleran uda osoan, Arteguneak antolatutako ***Irudi sekuentziatuak. Argentinar emakume argazkilariak***, alde batetik, eta Mikel Laboaren (1934-2008) *Lekeitioak* obra oinarri duen ***Komunikazio-inkomunikazio***, bestetik.

Erakusketekin batera, J**ulio Le Parc artista argentinarraren *Kuboa*** lanaz eta **Niño de Elche artistaren *La pena y el alivio*** soinu-instalazioaz gozatu ahal izango dute herritarrek.

Tabakalerako **pantaila partekatua**k aurrera jarraituko du bere ohiko eskaintzarekin, eta film emanaldi ugari izango da zine-zaleentzat: urte osoko **Buñuel**en zikloari, **Jazzinema eta Alice Rohwacherren** ziklo berriak gehituko zaizkio.

**Medialab liburutegi laborategia**k, bestalde, proposamen berezi eta ezberdin bat antolatu du herritar guztientzat uda garaia igarotzeko. Izan ere, bigarren solairuan ohiko programazio eta zerbitzua ematen jarraitzeaz gain, Tabakalerako kanpoaldean ere izango baitugu Medialab, Zigarrogileak plazan, "**Medialab magnolietan"** izeneko ekimenari esker: irakurtzeko, jolasteko eta sormena lantzeko txokoak, adin tarte ezberdinetarako jarduerak, maileguan eramateko edukiak, eta udaz haize zabalean gozatzeko espazio bikaina eskainiko da uda osoan zehar.

## CHILLIDA LEKU

Chillida Lekuk ekainetik irailera bitarteko programazioa antolatu du. Aurreko denboraldiko jarduera arrakastatsuenak eta ekitaldi-eskaintza berri bat batzen ditu; horietako batzuk, opera esaterako, inoiz egin ez direnak museoan.

Programazioak espazio honen garrantzia aldarrikatzen du, diziplinen arteko elkarrizketak sortzeko aukera ematen duen topaleku gisa.Uda honetarako programazioan, haur eta gazteentzako esperimentazio artistikoko tailerrak ere badaude. Horietan, artearekin eta naturarekin harremanetan jarri eta adierazpen artistikoko beste modu batzuk (dantza, esaterako) esploratu ahal izango dituzte.

Aurten, Chillida Leku berriro arituko da lankidetzan Donostiako musikaren erreferenteekin, museoaren lehen garaian egiten zuen bezala, Donostiako musikaren erreferenteekin, hala nola Jazzaldia eta Musika Hamabostaldia, eta uztailaren 15ean *streaming* bidez emango den Dantz point-aren egoitza izango da.

Jarduera hauetaz gain, ekainaren 10ean, Chillida Lekuk erakusketalerro berri bati ekingo dio, artista gonbidatuen programa, Chillidaren artista garaikide esanguratsuen obrak hartuko ditu ardatz.

## KUTXA KULTUR

Kutxa Kultur Gauak programak udako gauak girotuko ditu berriro. Maiatzaren 29tik aurrera, musika, dantza, antzerkia, arte eszenikoak eta tokiko ia 60 proposamen izango dira Kutxa Kultur-eko terrazan, Tabakalerako laugarren solairuan.

Kontzertuak, antzerkia, topaketak, elektro-saioak, dantza garaikidea, moda…, eskaintza osoa eta kalitatezkoa da, eta, gainera, berrikuntzak ere baditu, hala nola Kutxa Kultur Musika 2021 banden aurkezpen-kontzertuak, Dock of The Bay jaialdiaren eskutik irrati eta dock live saioak, zinema-saioak… Aire zabalean gozatzeko pentsatutako proposamena da, baina, eguraldia lagun ez bada, Kutxa Kultur Plazara eramango da.

Gainera, José Ramón Amondarain artista donostiarraren erkusketa handi bat ikusgai egongo da udako goi denboraldian Kubo Kutxa aretoan 2021ko maiatzaren 21etik irailaren 26ra. *Irudiak astintzea* José Ramón Amondarainen lanari buruzko atzera begirako lehen erakusketa da; sakon aztertzen du artistaren 30 urtetik gorako ibilbidea, eta 200 pieza baino gehiago biltzen ditu, donostiar artistaren sortze etapa ia guztietakoak.

Halaber, *Argentinar emakume argazkilariak 1930-1990* erakusketa Kutxa Kultur Artegunea aretoan egongo da zabalik, 2021eko ekainaren 18tik urriaren 12ra.

## AQUARIUM

Donostiako Aquariumak bere ohiko ordutegia berreskuratuko du udara honetan uztailaren 1etik abuztuaren 31bitarte eta egunero irekita edukiko ditu bere ateak goizeko 11etatik arratsaldeko 20ak arte. Lehiatila ordubete lehenago itxiko da.

Segurtasun neurriak bermatuz, T aretoan Uri Bong Gipuzkoan bizi den artista korearraren erakusketa egongo da ikusgai eta Aquariumeko erronka nagusia den Dibulgazioan urrats bereziak emango ditugu Itsas ingurumenaren gaineko ezagutza eta sentsibilizazioa iturri bihurtzeko uztaila eta abuztuko hilabetean burutuko ditugun “Plisti Plasta” izeneko udalekuak prestatuz.

Gainera, aurtengoa lehengo udara izango dugu ikusentzunezko Audiogida berriak edukiko ditugula eskuragai turista eta bisitari guztientzat eta azpimarratzekoa da ezgaitasuna bisuala duten pertsonei zuzenduriko Amuse aplikazio berriaren eskaintza udara honetan, gure Aquariumeko bisitan zehar orientazio sisteman laguntzeko eta aberasteko balioko duena. Soinu eta ahozko mezuen bitartez bisita berezi eta aberats bat eskeiniko du Donostiako Aquariumak.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# Donostia levanta el telón de su verano cultural más saludable

*Los diferentes agentes culturales presentan una programación de alto nivel por su oferta, variedad y accesible para el conjunto de la ciudadanía*

*Más de medio millar de actividades conforman una agenda que relanza la ciudad tras el parón de la pandemia*

La ciudad de Donostia / San Sebastián abre su temporada cultural veraniega con una oferta "rica, amplia, variada, accesible, para todos los públicos, dinámica y que se adaptará a la cambiante realidad sanitaria de los próximos meses". Así lo ha asegurado hoy el alcalde, Eneko Goia, durante la presentación de la programación cultural que Donostia / San Sebastián ofrecerá durante los próximos tres meses.

El alcalde ha encabezado previamente una reunión de trabajo con los principales actores del la temporada estival donostiarra: Donostia Kultura, Jazzaldia, Quincena Musical, Zinemaldia, Chillida Leku, Tabakalera, San Telmo Museoa, Cursos de Verano de la UPV, Kutxa Kultur, Aquarium, Museo Diocesano y Kursaal. Todos ellos, así como otros promotores del ámbito privado, conforman un abanico de propuestas que anticipan un verano lleno de posibilidades culturales para donostiarras y visitantes y que convertirán a la ciudad en su conjunto en un escenario en el que tendrán cabida representaciones de diferentes disciplinas.

Son más de medio millar de actividades, que comenzaron la pasada semana con la presentación pública de HONDALEA y que culminarán a finales de septiembre con el Zinemaldia. Un trimestre jalonado por las habituales citas festivaleras, exposiciones de alcance, actividad teatral en la calle, conciertos y actividades lúdicas y festivas.

Todo, además, en un contexto cambiante debido a la evolución sanitaria y que obligará a incorporar una dimensión "dinámica" para ir adaptándose a las condiciones de aforo establecidas por las autoridades.

Esta programación cultural conforma una oferta "difícil de batir, completa, variada y que permite disfrutar de múltiples formas y en diferentes emplazamientos", además de mantener viva la actividad del sector cultural y de los servicios auxiliares.

"En un momento de dificultad, Donostia apuesta por mantener la actividad cultural como fórmula para respaldar a un sector que está pasándolo mal y al que la mejor contribución que podemos hacer es programar", ha señalado el alcalde.

## DONOSTIA KULTURA

**Museo San Telmo Museoa:** *"El viaje más largo",* la gran exposición conmemorativa de la primera vuelta al mundo, llega al Museo San Telmo el 26 de junio. Esta muestra , además de narrar y conmemorar la primera vuelta al mundo como un acontecimiento clave en la historia universal, es también un homenaje al espíritu explorador del ser humano y su actitud ante lo desconocido.

La oferta de exposiciones temporales del museo se completa este verano con otras propuestas interesantes como son *Magia, materia y necesidad*, el trabajo videográfico de Jose Mari Zabala dentro del programa Museo Bikoitza, y la exposición que muestra el proceso creativo de *Hondalea* de Cristina Iglesias.

Por otra parte, tras permanecer cerrados por la pandemia, los tres centros del monte Urgull abrirán sus puertas este verano: la Casa de la Historia estará abierta a partir del 18 de junio, tras haber realizado algunos cambios en la exposición *Mirando a San Sebastián*; y el Natur Txoko y la Biblioteca, a partir del 1 de julio.

Además, los tres recuperarán este año una oferta de actividades dirigida a los niños y niñas siempre adaptada a la situación: se reducirán los aforos y será necesaria la inscripción para todas las actividades. Cada uno de ellos los ofrecerá una vez a la semana, en euskera y para niños mayores de 5 años.

**Jazzaldia:** El Festival se celebrará del 21 al 25 de julio y contará con un total de 60 conciertos gratuitos y de pago que se celebrarán en 8 escenarios distintos de la ciudad. Las entradas y los abonos se pusieron a la venta ayer miércoles, 9 de junio.

Este va a ser un Festival de voces femeninas y de pianistas. También contará con un gran número de músicos españoles. Además, la sección de Jazz para las familias, Txikijazz**,** contará con cuatro sesiones, también gratuitas, que tendrán lugar en la terraza Guuk Gunea y en Kutxa Kultur Tabakalera.

**Festak:** Donostia Festak ha preparado un programa de actividades culturales y deportivas que arrancarán el próximo 24 de junio, con un concierto coral en la Iglesia de San Vicente, y finalizarán el 12 de septiembre, con la segunda jornada de las Regatas de San Sebastián.

Serán actividades de pequeño formato en las que la música, el teatro de calle, los deportes rurales, las actividades infantiles y el cine serán protagonistas. También se podrá participar activamente en propuestas lúdico-deportivas programadas para todo tipo de público.

El cine y el teatro visitarán los barrios a lo largo del mes de agosto y, en septiembre, en fechas en torno a la celebración de las Regatas, y con una programación cultural ligada a la producción en euskera. Además, los Gigantes permanecerán expuestos en el Museo de San Telmo durante todo el mes de agosto.

***Antzerkia kalean***: También en la calle, Donostia Kultura, a través de la red de centros culturales, organiza el programa de teatro en la calle *Antzerkia Kalean* 2021 desde el 11 de junio hasta el 10 de septiembre. Un total de 18 compañías presentarán 21 espectáculos en 25 funciones que llevarán el espectáculo, la música, el humor, el circo, el juego y el color a nuestra ciudad.

Las propuestas dirigidas a un público infantil y familiar dominan un programa que incluye también propuestas de danza y teatro para personas adultas. La citas será en los diferentes barrios de la ciudad que acogen este programa.

**Teatro de verano:** Tras la demostración de seguridad en los escenarios vivida el año pasado, el Teatro de verano vuelve este 2021 con una programación basada en la comedia, con espectáculos conocidos, artistas de renombre y títulos con tirón.

Se trata de obras *como "Ramper", "Yo soy el que soy", "La mujer de negro", "Por lo pelos",* y nombres como Loles León, Jorge Javier Vazquez, Oscar Terol o Gorka Otxoa. Además habrá dos estrenos absolutos como *" 5 minututan"* y *" Capullas".*

**Dkluba:** El circuito Dkluba de Donostia Kultura continuará organizando conciertos en salas privadas de la ciudad. Así, de junio a septiembre, hay programadas varias actuaciones en Bataplán, Dabadaba, Doka y ¡Beclub!… Donde, entre otros, se podrá escuchar a Dupla, El Meister, Manolo Kabezabolo, Havoc…

**Public diplomacy & cultural diplomacy**: Dentro de la oferta de Cursos de Verano de la UPV, Donostia Kultura ofrece el curso *"Public diplomacy & cultural diplomacy"*, donde se analizarán cuatro décadas de diplomacia cultural pública vasca; además de ofrecer una aproximación a las tipologías que conforman la diplomacia cultural. Tendrá lugar del 21 al 23 de julio.

## FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN

En 2021 el Festival de San Sebastián confía en que la situación sanitaria permita organizar la 69 edición en unas condiciones que aún seguirán marcadas por la pandemia, pero que serán más parecidas a las de un año normal.

Confía en ampliar el número de proyecciones y la capacidad de aforo de las salas, y también querría recuperar las presencias de las estrellas en la alfombra roja. En definitiva, que el de este año sea un festival que devuelva la ilusión a la ciudad tras meses complicados en todos los ámbitos.

Del 17 al 25 de septiembre, la Sección Oficial volverá a alternar títulos dirigidos por nombres consagrados con trabajos de jóvenes talentos; New Directors presentará las

primeras o segundas obras de sus cineastas; Horizontes Latinos ofrecerá una mirada al cine de América Latina; Zabaltegi-Tabakalera mostrará una selección de trabajos sin normas ni limitaciones de estilo o tiempo; Perlak rescatará obras alabadas o premiadas en otros festivales; y Nest reunirá a cortometrajistas de escuelas de cine de todo el mundo. Tampoco faltarán a su cita las propuestas de Culinary Zinema, Made in Spain, Zinemira ni las proyecciones para escolares.

Por segundo año consecutivo, el Velódromo no podrá ser empleado como sala gigante de cine, pero el Festival sí recuperará la sección Klasikoak y la retrospectiva 'Flores en el infierno. La edad de oro del cine coreano', que el año pasado tuvieron que suspenderse por la pandemia.

## QUINCENA MUSICAL

La 82 edición de la Quincena Musical tendrá lugar del 1 al 27 de agosto. A pesar de los condicionantes derivados de la COVID-19, su programación supone un paso hacia la normalidad y recupera en gran medida la envergadura de ediciones pasadas.

San Sebastián será el epicentro del festival, pero se recuperan escenarios e iniciativas que en 2020 quedaron descartados por efecto de la pandemia y volverá a formar parte de la oferta cultural veraniega de diversas localidades de Gipuzkoa, Álava, Navarra e Iparralde.

La programación del Auditorio Kursaal, el escenario principal del festival, es una clara muestra de esa vocación de vuelta a la normalidad que impulsa al festival y, a través de una oferta accesible al gran público, permitirá disfrutar de algunos de los mejores solistas del mundo, grandes orquestas y coros y de un repertorio heterogéneo.

Además de las propuestas que acoge el Auditorio Kursaal, la programación se vertebrará en torno a los diversos ciclos que se llevan a cabo en otros escenarios, varios ya clásicos (Teatro Victoria Eugenia o Museo San Telmo), algunos que se consolidan (Tabakalera) y otros que nuevamente forman parte del festival (Arantzazu y Chillida Leku).

## TABAKALERA

En el ámbito del **arte**, Tabakalera acogerá durante todo el verano dos exposiciones principales. Por un lado, *Imágenes secuenciadas. Fotógrafas argentina*s organizada por Artegunea, y por otro, *Komunikazio-inkomunikazio* que tiene como base la obra *Lekeitioak* de Mikel Laboa (1934-2008).

Junto a las exposiciones, los ciudadanos podrán disfrutar de la obra *Kuboa* del artista argentino Julio Le Parc y de la instalación sonora *La pena y el alivio* del artista Niño de Elche.

La **pantalla compartida** de Tabakalera seguirá adelante con su oferta habitual y habrá un gran número de películas para los aficionados al cine: al ciclo de todo el año de *Buñuel* se sumarán los nuevos ciclos de *Jazzinema* y *Alice Rohwacher*.

El laboratorio bibliotecario **Medialab**, por su parte, ha organizado una propuesta especial y diferente para toda la ciudadanía. Y es que, además de seguir ofreciendo la programación y el servicio habitual en la segunda planta, en las afueras de Tabakalera también tendremos Medialab, en la plaza de las Cigarreras, gracias a la iniciativa *"Medialab magnolietan":* rincones para leer, jugar y cultivar la creatividad, actividades para diferentes franjas de edad, contenidos para llevarlos en préstamo, y un espacio perfecto para disfrutar del verano al aire libre.

## CHILLIDA LEKU

Chillida Leku ha preparado una variada programación para los meses de junio a septiembre. En ella, se unen las actividades de más éxito de la temporada pasada con una nueva oferta de eventos, algunos de ellos, como la ópera, que nunca antes se habían celebrado en el museo.

La programación para este verano, que reivindica la importancia de este espacio como un lugar de encuentro que permite que se generen diálogos entre diferentes disciplinas, también incluye talleres de experimentación artística en las que niños y jóvenes podrán tomar contacto con el arte y la naturaleza y explorar otras formas de expresión artística como la danza.

Este año, Chillida Leku vuelve a colaborar con referentes del panorama musical donostiarra como el Jazzaldia y la Quincena Musical y será la sede de unos de los Dantz Points que se emitirán en *streaming* el 15 de julio.

Además de estas actividades, el 10 de junio Chillida Leku inicia una nueva línea expositiva, con un programa de artistas invitados focalizado en la escultura realizada por grandes figuras contemporáneas a Chillida.

## KUTXA KULTUR

Kutxa Kultur Gauak volverá a ambientar las noches estivales a partir del 29 de mayo. Casi 60 eventos de música, danza, teatro y diversas artes escénicas y propuestas locales en la terraza de Kutxa Kultur, en la cuarta planta de Tabakalera.

Una oferta completa y de calidad, que además cuenta, entre otras, con novedades como los conciertos de presentación de las bandas Kutxa Kultur Musika 2021, las sesiones de radio y dock live de la mano del festival Dock of The Bay, sesiones de cine… Una propuesta pensada para disfrutarla al aire libre, pero que se trasladará a Kutxa Kultur Plaza en el caso de que el tiempo no acompañe.

Además, una gran exposición del artista donostiarra José Ramón Amondarain estará abierta al público durante toda la temporada alta estival en la sala Kubo Kutxa (del 21 de mayo al 26 de septiembre). Es la primera exposición retrospectiva que repasa en profundidad el trabajo de José Ramón Amondarain, durante más de 30 años, y agrupa más de 200 piezas realizadas a lo largo de prácticamente todas las etapas creativas del artista donostiarra.

Kutxa Kultur Artegunea acogerá también la ya citada exposición *Fotógrafas argentinas 1930-1990, que* permanecerá abierta al público en Tabakalera entre los días 18 de junio y 12 de octubre de 2021.

## AQUARIUM

El Aquarium de San Sebastián recuperará este verano su horario habitual desde el 1 de julio al 31 de agosto y mantendrá abiertas sus puertas todos los días desde las 11 horas de la mañana hasta las 20 horas de la tarde. La taquilla se cerrará una hora antes.

Garantizando las medidas de seguridad, la sala T acogerá una **exposición** de la artista coreana residente en Gipuzkoa **Uri Bong** y siguiendo con el trabajo de la Divulgación que constituye el principal reto del Aquarium, el verano se va a convertir en fuente de conocimiento y sensibilización medioambiental con el entorno marino a través de la preparación de las **colonias "Plisti Plasta"** que celebraremos durante los meses de julio y agosto.

Además, este verano habrá nuevas audio guías con sistema multimedia y audiovisuales para todos los turistas y visitantes que harán mucho más atractivo la visita del museo donostiarra. La oferta se amplía también con la nueva aplicación Amuse dirigida a personas con discapacidad visual, que este verano servirá para ayudar y enriquecer el sistema de orientación durante la visita al Aquarium. El Aquarium donostiarra ofrecerá una visita especial y enriquecedora a través de sonidos y mensajes orales.

*Donostia / San Sebastián, 10 de junio de 2021*